

ON MANUEL BEOBIDE-KOARI.

¡Doaikerde Zerukoa!
 ¡Atoz, atoz nigana!
 Atoz; bada pozturikan
 Joaten naiz ni zugana.

—

Atoz, birtute gozoa,
 ¡Bai! nere biyotzera,
 Zure egintza donetiyak
 Neri erakustera.

—

Atoz, bada; bete zazu
 Guziz nere biyotza;
 Atoz; aldendu dedin ¡ai!
 Barruan dedan otza.

—

Ez dezadala nik aztu
 Zor dedan ontasuna,
 Izan dedin beti nigan
 ¡Ai Zoriontasuna.

—

Erakusten digu Jaunak
 Zu biziro maitatzen;
 Zor ditugun mesedeak
 Biyotzetik eskertzen.

Mesedegille danentzat
 Naitasuna gordetzen;
 Estutasunen batean
 Daudenean laguntzen.

—

Berak pozten diranean
 Gu-re pozez betetzen,
 Baldin negarrez badaude
 Guk malkoak isurtzen.

—

¡Eta nola lagako det
 On Manuel, berorri,
 Nik dedan doaikerdea
 Agertu gabe beti?

—

Gaur izanik berorrentzat
 Egun oroigarriya,
 Opatutzen diot izan
 Dezala pozgarriya.

—

Jaunak eman deizkiola
 Egun zoriontsuak,
 Opa diot, On Manuel;
 Izan bitza gozuak.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

Santander-en Epaillaren 18-an 1883-an.